

2001-11-14
kioskoa

Pantxike Agirre

Aznarren
laguntzak

New Yorken 255 lagunekin erori zen hegazkinaren irudia utzi ziguten atzo lehen orrian egunkari guztiek, eta gertaera horrek sortu zuen izua eta atentatua izango zen kezka titular eta editorialetara eraman zuten. New Yorketik zetozen notiziek sortutako nahasmen horretatik urrun, Espainiako presidente Jose Maria Aznar Italiako gobernuburuarekin, Silvio Berlusconi-rekin, bilduta zegoen Granadan, ezker abertzaleko erakundeak Europako Batasuneko «talde terroristen zerrendan» sartzeko bere asmoetan lehen urratsak egin nahi-an. «Italiak Espainiari lagunduko dio EBk Batasuna ETA bailitzan har dezan», zioen *El Pais*-ek. Zerrenda hori «irekia» izatea nahi duela Espainiako Gobernuak nabarmendu zuten *El Mundo*-k eta *Abc*-k, azken horren arabera, «zerrendan agertzen den talde bat lege kanpo uzten denean, beste izen batekin berrager dadin eragozteko». Asmo horretan ere Italiaren laguntza lortu zuela Aznarrek, zioten bi egunkari horiek. Gobernuaren buruan Batasuna, AAB, Segi eta *Gara* daudela nabarmentzen zuten baita ere egunkari espainiarrek, Mariano Raxoi Barne ministroaren adierazpenetan oinarrituz.

Aznarrek atzera lehendakari gaitan izan behar duen eztabaidaren inguruan, bestalde, *El Pais*-ek eman zuen atzo iritzia. Aukera horren alde mintzatu direnengatik «eramatzen» uzten ari dela PPko burua ematen zuen aditzera egunkari horrek. «Bestela, [ez aurkezteko] erabakia garbi badago, ez da ulertzen maiz ikusten duten pertsona horiek Aznarrek iritziz alda dezan komentzitu nahian segitzea; hau da, agindutakoa bete ez dezan».

Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administratzaile Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13 esk. (Irritziz dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Aliantzaren deia
Gobernua
osatzeko

Iparraldeko Aliantza Kabul sartzu zen atzo eta dei egin zien Afganistango etniei Gobernuaren eratzeko lanean hasteko. Talibanen aurkako oposizioak NBE Nazio Batuen Erakundearen ere egin zion gonbitea, haren nazioarteko bitartekaritzaren bidez Afganistango gober-

nu berria era sendoan osatzea bermatzeko xedez.

Aliantzaren kanpaina militarra gehienek espero baino azkarrago joan da. Asteburuan Mazar-i-Sharif hiri estrategikoa bereganatu zuenetik, oposizioak aurrerantz jo du etengabe, hiriburu hartu arte. Talibanak hegoaldeko mendietan ezkutatu omen dira. Garaipe garrantzitsua izan da atzokoa Aliantzarentzat. Herrialdearen kontrol osoa ez badu ere, haren tropek oinarri sendoak finkatu dituzte hori laster errealitate izateko.

Aliantza Kabul sartzeari zuhur iritzi dio nazioartekoak, hasiera batean. Izan ere, hiri neutrala izatea komeni zela adierazi zuten EEBBek eta Pakistanek, gobernu akordiorik lortu arte.

Orain aginte berria nola osatu izango da auzi nagusia, eta Afganistanen oreka eta bake iraunkorra bermatzea. Konponbidea ez da erraza, etnia guztiak batuko litzatekeen gobernuan paxtunek sartu beharko bailukete —talibanen artean gehienak dira—. Aliantza horretarako prest balego, bidea askoz samurragoa izango litzateke.



Gizonezko bat bizarra mozten Kabul, Iparraldeko Aliantza hiriburura sartu eta gero.

Sindikatuaren kontzentrazioa Leioako campusean, Unibertsitate Legearen aurka.



Zerrenda beltz irekiak

Aznarrek Berlusconiaren sostengua lortu du Europako Batasunak abenduan onartzeko duen «terroristen zerrendan» erakunde armatuak ez ezik talde hauen helburuekin bat egiten duten erakundeak ere sartzeko. «Zerrenda irekiak» egitearen alde dagoela esan du Berlusconi, «ekintza terroristak egiten dituztenak edo sostengatzen dituztenak, izena aldatzen dutenean ere, zerrendan sartu ahal izateko». Eta badakigu, Aznarrek eta Raxoi *erakutsita*, «zerrenda irekiak» zer esan nahi duen. Ez dago oraingoz garbi azkenean zerrendan zein sartuko dituzten, ezta sartuko dituztenentzat zer ondorio ekarriko dituen —bere estatuan legekoa den erakunde bat lege kanpo jar daiteke Europako—, baina garbi dago Espainiako Gobernuak helburu abertzale edota euskaltzaleak dituen hainbat erakunde harrapatu nahi dituela sare horietan, eta Europako laguntzarik ez zaiola falta helburu horretan.

Euskal hezkuntza sistema
propioaren aldeko aldarria

EILAS, ELA eta LAB sindikatuek deituta kontzentrazioak egin ziren atzo Hego Euskal Herriko lau campusetan, *Gure unibertsitatea, Euskal Herriaren zerbizura* lelopean. Espainiako Gobernuaren prestatzen ari den Unibertsitate Legea kritikatzeko, ausardia eskatu zieten Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari Euskal Herrian dauden unibertsitateak bertako gizartearen zerbizura jartzeko. Atzokoa, ordea, euskal hezkuntza sistemaren aldeko aldarria izan zen; unibertsitateko ordezkariekin bat egin zuten irakaskuntza eta euskalgintzako hainbat erakunde, hala nola: Ikastolen Elkarteak, Gurasoen Elkarteak, UEUK, Sortzen-Ikasbatuaz-ek, IAK, EIREK eta Kontseiluak. Euskal hezkuntza sistema bermatuko duen Unibertsitate Lege propioa aldarrikatu zuten.